

Martxoan egin zuten hitzarmena

EROSKI-K ETA EP BIDCO-K KATALUNIAN ETA BALEARRETAN DUTEN ALIANTZA FORMALIZATU DUTE

- **Supratuc2020 elkartearen Administrazio Kontseilua eratu dute, eta EROSKI taldeak Katalunian eta Balearretan dituen negozioak bilduko ditu**
- **Akziodunen lehen Batzar Nagusian elkarteko lau kontseilariak izendatu dituzte, eta sozietatearen estatutuak onetsi**
- **Javier Amezaga, EROSKIko zuzendari korporatiboa, Administrazio Kontseiluko presidentea izango da**

Elorrio, 2021eko irailaren 7a.- Gaur formalizatu dute operazioaren izenpetzea; hala, EP Bidco sozietatea, EP Corporate Group txekiar taldea eta Patrik Tkač eslovakiar inbertsiogilea partaide direna, Supratuc2020 bazkide gisa txertatu da, zeinak EROSKIren Kataluniako eta Balearretako negozioak biltzen baititu; horretarako, martxoan egindako hitzarmeneko arau eta kontratu baimen guztiak gainditu dituzte.

Operazioa sinatuta, sozietatearen batzorde eratzailea egin dute, eta estatutuak onetsi dituzte. Era berean, Administrazio Kontseiluko kideak izendatu dituzte, presidente EROSKIko zuzendari korporatiboa izango delarik, hau da, Javier Amezaga. Organoan dira, hala berean, Rosa Carabel EROSKIko zuzendari nagusia, Marco Arcelli EP Global Commerceko CEOa eta Roman Šilha EP Global Commerceko Operazio Korporatiboen arloko eta VESA Equity Investmenteko zuzendaria.

Operazioa behin betiko gauzatzeak inbertsioak eta jarduera bultzatuko ditu Katalunian CAPRABO markarekin eta Balearretan EROSKI markarekin. Hitzarmenaren abiaburuan kudeaketa eta garapen plan bat dago, elkarrekin adostu dutena bi aldeek; hari esker, EROSKI taldea sendotu egingo da merkatutetan, indartu egingo da haren posizio komertziala eta errentagarritasuna hobetuko da.

"Gaur etapa berri bati ekin diogu, eta bide horretan gure bazkide berriaren konfiantza izango dugu. Hitzarmen honi esker, inbertsio gaitasun handiagoa izango dugu Kataluniako eta Balearretako negozioetan, eta kudeaketa eta garapen plan bat abiatuko dugu bi aldeek elkarrekin adostuta. Arrakastaz amaitu dugu gure proiekturako bazkiderik onena aurkitzeko prozesua", esan du Javier Amezagak, EROSKIren zuzendari korporatiboa eta Supratuc2020ko presidente berria bera.

Supratuc2020ren gobernantza arautuko duen hitzarmenari esker, EROSKI taldeak sozietatearen gaineko kontrola izaten jarraituko du, eta Supratuc2020 eta haren partizipatuek (CAPRABO eta Cecosa Supermercados) osatutako azpitaldearen aktibo

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

garbiak sendotzen. Transakzioak ez du eragin esanguratsurik izango EROSKI Taldearen emaitza indibidualetan ezta kontsolidatuetan ere, taldearen Ondare Garbia indartuko da eta zor finantzarioa nabarmen murriztuko du.

Gaur egun, 2021eko abendurako kitatu beharreko zorra, 315 milioi eurokoa, erabat amortizatuta gelditu da, eta, gainera, 2024ko uztaileko kuotaren zati bat aurreratu ahal izan da. Espero izatekoa da birfinantzaketa kontratuan datorrenaren gainerako amortizazioa mila milioi euroz azpitik gelditzea urte bukaerarako.

Javier Amezaga

(Santurtzi, 1967). Goi Industria ingeniaria Bilboko Eskolan eta Executive MBA Esaden. EROSKI taldeko kide da 1993tik, eta ibilbidea eremu logistikoan abiatu zuen, zeina 5 urtez zuzendu baitzuen. 2007tik 2010era, Javier Amezaga CAPRABOko zuzendari nagusi izan zen, eta berak eraman zuen lidergoa katea EROSKI taldean integratzeko. 2021eko otsailetik, taldearen zuzendari korporatiboa da; aurretik, hurrenez hurren, Zuzendaritza Nagusian eta Baliabideen Zuzendaritza Nagusian ibili da. Orain, Supratuc2020ko presidente izendatua izan da; kargu hori bera izan du 2013tik VEGALSA-EROSKIren Administrazio Kontseiluan.

CAPRABO

EROSKI taldearen Kataluniako filiala, CAPRABO, erreferentziazko supermerkatu enpresa da Katalunian, eta EROSKI taldearen parte bihurtu zen 2007an. Garai hartan, supermerkatuak zituen Katalunian, Madrilan, Balearretan eta Nafarroan; Kataluniatik kanpo, CAPRABOren sarea saltokien ia erdia zen (%44), eta EROSKI taldearen beste sozietate batzuetan integratu zen. Gaur egun, CAPRABOk 213 supermerkatu propio ditu, 80 frankizia eta gasolindegia bat, eta sarea Kataluniako eta Andorrako lurralde osoan hedatua dago, haietan 5.700 pertsonak baino gehiagok dihardutelarik egunero 150.000 bezerori zerbitzu emanez.

EROSKI BALEARRAK

EROSKI taldeak 107 supermerkatu propio eta 72 frankizia ditu Balearretan, ia 2.500 langileko taldea eta 377.432 bezero bazkideko komunitatea.

EROSKI Taldea

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.624 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

bai eta bere *online* supermerkatua. Era berean, sei milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile baino gehiago.

EPCG & PATRICK TKAČ

EP Corporate Group *holding* berri gisa eratu da, eta bertan biltzen dira Daniel Křetinskýren eta haren zuzendaritza taldearen partaidetza estrategiko guztiak, baita honako hauek ere: EPH (energia eta azpiegitura), EP Global Commerce (handizkaria eta cash & carry-a), Czech Media Invest (komunikabideak), EC Investments (merkataritza elektronikoa), EPRE (etxe agenzia). Pragan du egoitza EP Corporate Groupek, Txekiar Errepublikan.

Patrik Tkač J&T FINANCE GROUP SE banku *holding*-aren fundatzaileetako bat da, J&T BANKAko administrazio kontseiluko presidentea, inbertsiogilea eta enpresa garrantzitsuen jabea bai Europa Erdialdean eta bai Ekialdean *private equity* arloan, energian, komunikabideetan, merkataritza elektronikoa eta banaketan. Era berean, aspalditik da Daniel Křetinskýren kide eta inbertsio-laguna, EPGCKo bazkide nagusia bera.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa